



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ekonomia Sustapeneko,
Landa Ingurune eta
Lurralde Orekako Departamentua

ERALGIP

ESKAERAREN TXOSTENA OSATZEKO GIDA



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ekonomia Sustapeneko,
Landa Ingurune eta
Lurralde Orekako Departamentua

OHARRAK:

Jarraian eskabidearen balorazio egokia egin ahal izateko eskabidearen txostenak jorratu beharko liratekeen arloak azaltzen dira.

Aplikatiboan eskaera txostenaren formularioa betetzea derrigorrezkoa da. Horretaz gain, dokumentu osagarriak erantsi daitezke aplikatibora.



Helburua

HAUTAGARRITASUNA

- Proiektuaren kokapena “Gipuzkoako enpresa ehunaren lehiakortasuna indartzea sustatzeko programa” arautzen duen 2016ko uztailaren 19an Diputatuen Kontseiluak onartutako erabakiaren IV. Eranskineko 3. oinarrian aurreikusitako jarduera hautagarrien barruan

ZERTARAKO

- Proiektuaren testuingurua eta justifikazioa
- Aldatu/hobetu nahi den egoeraren deskribapena/diagnostikoa
- Helburua
- Aplikazio eremua
- Lortu nahi diren emaitzak/hobekuntzak
- Orain artean garatutako jarduerekin alderatuz proiektuak duen balio erantsia
- Zer eragin izango duen (merkatuetan, fakturazioan, enpleguan,)
- Enpresaren jasangarritasunean eta lehiakortasunean proiektuak duen eragina
- Gipuzkoako enpresa ehunean izan dezakeen eragina



Garatuko den proiektua

ZER - NOLA

- Garatuko den proiektuaren eta ekintzen deskribapena
- Proiektuaren dimentsioa eta hedadura
- Proiektuaren txertaketa enpresak dituen plan eta estrategiekin
- Proiektuan/balio proposamenean jasagarritasun hirukoitzarekin (soziala, ekonomikoa eta ingurugirokoa) erlazioa duten aldagaiak sartzeari
- Garatuko den proiektuaren eta sortutako balio proposamenaren erlazio maila balio erantsiko eta kalitatezko jarduerekin eta enpleguekin.
- Izaera eraldatzailea: esperientzia jomuga izatea, egitasmoaren elementu eraldatzaileak, eraldaketa maila.
- Ikasitakoa eta praktika onak indarrean jartzea, aroko esperientzietako emaitzak kontuan izatea (erakundearenak nahiz kanpokoak)
- Erabiliko den metodologia
- Prozesu parte-hartzaileen antolaketa: Zer neurritan da egitasmoa partaidetza eredu baten bidez garatzekoa? Zer lankidetzaren eta partaidetza modutan garatuko da egitasmoa (barrukoak nahiz kanpokoak)?
- Genero ikuspegiaren txertaketa egitasmoaren diseinu eta garapenean
- Euskara sustatzeko ekintzak: Zein arau eta prozedura euskarri ditu garatuta erakundeak (planak, eta abar), zein esperientzia, erakundeak jardueran euskara ezagutzeari eta erabiltzeari dagokienez? Egitasmoa garatzean, zein izango da euskararen erabilerari emango zaion tratamendua? Zein neurritan eragiten du egitasmoak erakunde jardueran euskara ezagutzeari eta erabiltzeari dagokionez?
- Bi hizkuntza ofizialen tratamendua
- Aurreikusitako ebaluazio, jarraipen eta neurketa sistema eta emaitzen aplikagarritasuna
- Bideragarritasun ekonomikoa jarduketara garatzeko
- Aurreikusitako egutegia
- Entregagaiak



NORK

- Egitasmoan parte hartuko duten erakundeen deskribapena, erakunde parte-hartzaileek hartutako konpromisoak, arloen arteko elkarlana eta prozesu parte-hartzaileak, sektore publikoa eta pribatuaren parte-hartzea, informazio eta kontsulta prozesua, lankidetzan aritzeko bitartekoak, parte-hartzearen justifikazioa, beste proiektu batzuetako esperientzia....
- Departamentuarekin harremanak izateko taldea izendatzea
- Aurreikusitako lan taldea: pertsonak (gaitasunen profila barne) eta baliabideak.



Barne pertsonala

BARNE PERTSONALA

- Proiektuan parte hartzen duten enpresaren pertsonak erantsi aplikatibora

KANPO PERTSONALA

- Proiektuan parte hartzen duten entitateko pertsonak erantsi aplikatibora



Garatuko diren zereginak eta azpizereginak

NOLA eta NOIZ

- Zereginen atalak eta azpiatalak azaldu:
 - Helburuak
 - Deskribapena
 - Parte hartzaileak
 - Entregagaiak
- Zereginen egutegia:
 - Noiz hasi eta noiz amaitu
 - Zenbat orduko lana



Aurreikusten diren zailtasunak

ZAILTASUNAK

- Diagnostikoa
- Diseinua
- Plangintza eta antolaketa
- Gauzapena
- Koordinazioa
- Bestelakoak